

HAUR KATEKESIA

Jainkoaren Hitza, herrientzat Argia

Irakaspen gisakoa baino gehiago, ospaketa gisako katekesia proposatzen dugu. Bi zati izango ditu: bata sarrerakoa, eta bestea ospaketakoa.

Hainbat zeinu eta otoitzen bitartez, bi helburu hauek lortzen lagundu nahi zaie hurrei:

1. Elizan iragarritako Jainkoaren Hitz horretan Jesus presente dagoela ulertzea.
2. Misiolari guztiek Jainkoaren Hitza, hau da Jesus, iragartzen dutela ulertzea, Hitz horrek Herri guztiei argi egin diezaien.

I. SARRERA

1. Domund eguneko kartelaren aurkezpena

Domund eguneko kartela komentatuz emango zaio hasiera katekesiari, eta horrek Jesusen presentziak adierazteko balioko du.

Non dago Jesus kartel honetan? galderaren erantzuna bilatuko dugu hurrekin.

- Apaizarengan, Jesusen izenean jarduten duelako.
- Biblian, Elizan iragartzen den une bakoitzean, Jesus bera delako hitz egiten duena.
- Batzarturiko elkartean. "Izan ere, nire izenean bizpahiru lagun nonbait biltzen badira, han nago ni beraien artean» (Mt 18, 20).
- Gurutzean, kristauen zeinua delako, eta Jesusek bere bizia gizon-emakumeon alde eman zuela gogorarazten duelako.

2. Ospakizunerako zeinuen aurkezpena

Ospakizunean zenbait zeinu erabiltzea proposatzen da, hurrei Jesus Argia eta Hitza dela barneratzen laguntzeko, eta misiolariak beren testigantza (Argia) eta predikuaren (Hitza) bitartez Jesus presente egiten dutela ulertarazteko.

- Gurutze bat
- Pazko Zuzia
- Biblia
- Bi kandela
- Jesus Haurraren irudia, ahal den handiena
- Kandela bat haur bakoitzarentzat



II. OSPAKIZUNAREN GARAPENA

1. Sarrerako prozesioa

Katekistak prozesioan sartuko dira elizan, honako hauek eramanez: Gurutzea, Pazko Zuzia itzalita, Biblia eta bi kandela piztuta bi aldeetan, Jesus Haurraren irudia, eta saskitxo bat haur guztien kandlekin.

Aldare erdira iritsitakoan, zeinu bakoitza bere lekuan ipiniko da:

- Gurutzea eta Zuzia bata bestearen ondoan. Biek Kristo irudikatzen dute.
- Biblia anboian eta bi zuziak alde banatan -oinarririk baldin badago-, bestela hauek daramatzaten bi haurrak geratuko dira bertan.
- Kandelak jasotzen dituen saskitxoan anboiaren oinetan, Jesus Haurraren irudiarekin batera.

Kantua:

Jauna, Jauna, egin gu bakearen zerbitzari.
 Gorrotoa nagusi den lekuan, nik maitasuna jar dezadala.
 Iraina nagusi den lekuan, barkamena jar dezadala,
 Haserrea nagusi den lekuan, batasuna jar dezadala,
 Gezurra nagusi den lekuan, egia jar dezadala,
 Zalantza nagusi den lekuan, sinesmena jar dezadala,
 Etsipena nagusi den lekuan, itxaropena jar dezadala,
 Ilunpea nagusi den lekuan, argia jar dezadala,
 Tristura nagusi den lekuan, poztasuna jar dezadala.



2. Otoitza

Apaizak, agurtu ondoren, otoitz egingo du:

Jauna, zu presente zaude gure artean; zure izenean elkartu gara, eskerrak ematen dizkizugu hor zaudelako, zure presentzia senti dezakegulako. Gurutzea begiratzen dugu eta han ikusten zaitugu, eta Pazko Zuziak zure Piztuera gogorarazten digu. Badakigu hitz egiten diguzula, eta Bibliako hitzetan presente egiten zarela. Jauna, eskerrak ematen dizkizugu! Jauna, gure artean zaude! Laguniezaguzu, argitu eta emaguzu misiolari izateko behar dugun adorea. Amen.

3. Ebanjelioaren irakurketa

Isiltasun labur baten ondoren, Jaunaren Hitza entzungo da eserita:

Hasieran bazen Hitza. Hitza Jainkoarekin zegoen eta Hitza Jainko zen. Hasieran Jainkoarekin zegoen Hitza. Hitzarengan zegoen bizia, eta bizia gizakien argia zen; argi horrek ilunpetan egiten du argi, baina ilunpeek ez zuten onartu.

Hitza zen egiazko argia, mundura etorri gizaki guztiak argitzen dituena. Bere etxera etorri zen, baina beretarrek ez zuten onartu. Onartu zuten guztiei, ordea, berarengan sinesten dutenei, alegia, Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien.

Hitza gizon egin zen eta gure artean jarri bizitzen. Ikusi dugu haren Jainko-aintza, Aitarengandik maitasun eta egiaz betea datorren Seme bakarrari dagokion aintza. Jainkoa ez du inork inoiz ikusi; Aitaren baitan dagoen eta Jainko den Seme bakarrak eman digu haren berri. (Jn 1, 1-2. 4-5. 9. 14. 18)

4. Azalpen kateketikoa

Haurren partehartzearekin, katekistak ideia hauek edo antzeko beste batzuk komentatuko ditu:

- Jainkoaren Hitza da Biblia. Bertan jasotzen da Jainkoak egin duena eta bere herriari urteetan zehar esan diona. Biblian dena idatzirik jarri da, guztiek ezagutzeko aukera izan dezaten. Kristaudentzat oso garrantzitsua

da Biblia irakurtzea eta Jainkoaren Hitza entzutea, Jainkoa bera delako hitz egiten diguna, Elizak erakutsitakoa denean bereziki.

- "Hitza gizon egin zen eta gure artean jarri bizitzen" entzun dugu: Jesus da Aitaren benetako Hitza, zeren jada ez digu letren edo soinuaren bitartez hitz egiten, bere Seme propioaren bitartez baizik, hau da: gizon eginez (horregatik ekarri dugu Jesus Haurra prozesioan), bere bizitzarekin (Bibliaren parte bat diren ebanjelioek hitz egiten digute), bere nekaldi eta heriotzarekin (gurutzearekin irudikatzen dugu) eta bere piztuerarekin (Pazko Zuziarekin irudikatzen dugu).
- Baita Hitza ere, gizon-emakume eta herri guztiei argi egiten dien egiazko argia delako, Pazko Zuzian irudikatua. Jesus da egiazko Argia, seme-alaba eta senide bezala bizitzera eramango gaituen bidea ongi ikusteko argi egingo diguna.
- Kristaua misiolari bihurtzen da Jesusen argia jarraitzen duenean: Jainkoaren Hitza jasotzen du, bere bizitzara eramaten du praktikan jartzeko, eta bere bizitza eta hitzaren testigantzarekin besteei iragartzen die.
- Orain jestuekin adieraziko dugu Jesus Herrien argia dela esaten diguten zeinu hauetako bakoitza. Errespetuz egingo dugu, otoitz eginez eta hausnartuz: Kristo da iragarri behar den Hitza, eta herri guztietara zabaldua izan behar duen argia.

5. Agurra Ebanjelioari

Bibliari muin ematera gonbidatuko dira haurrak, isiltasunean eta errespetuz, ahalik eta ospe handienaz. Jesus dela Hitza ulertu, eta zeinu horrekin aitortu nahi dute. Sarrerako hitz batzuk esan daitezke, eta gogorarazi Jesus Haurraren irudia Bibliaren aldamenean dagoela, Jesus delako Jainkoaren Hitza gizon egina.

Bien bitartean "**Bakearen mezulari**" kantua abestu daiteke.

6. Kristoren Argia: Pazko Zuzia

Tokiko argiak itzali, eta guztia ilunpean edo ilunantzean geratzen denean, Pazko Zuzia piztuko da.


Gurutzea eta Zuzia ospakizunaren buru direla, Gurutzeak eta Zuziak mundua, gizon-emakumeen bizitza, herrien kultura... argizatzen dituen Hitza presente egiten dutela gogoraraziko zaie haurrei.

Haur bakoitza Gurutzearen ondora hurbildu, eta erreberentzia edo agurraren zeinua egingo du; ondoren, kandela hartu eta Pazko Zuzian bertan piztuko du Jesusen ikasle eta misiolari izatearen seinale gisa. Bere argia, Kristo den Argi bakar horretatik piztuko du, Argi hori besteei eraman nahi dielako.

Bitartean «Eliza misiolaria» kantua abestuko da (CD, Juanjo Elezkano, *50 urtez bidean aurrera*).

Kantua: ELIZA MISIOLARIA

JESUSEN ELIZA MISIOLARIA GARA
BERAK BIDALIA HERRI DENETARA
JUSTIZIZ TA BAKEZ SENDO JOKATZERA
GIZARTE BERRIA GAUR ERAIKITZERA
JUSTIZIZ TA BAKEZ SENDO JOKATZERA
GIZARTE BERRIA GAUR ERAIKITZERA.



1. Jauna ari da beti guri dei egiten
Berri Ona zabaltzen saiatu gaitezen.
Jauna ari da beti guri dei egiten
Berri Ona zabaltzen saiatu gaitezen
Berri Ona zabaltzen saiatu gaitezen.
2. Bertotik eman dezakezu laguntza
Anaiarteko otoitza ta solidaritza. (Bis)
3. Jauna bai onbera ekintza denetan
bedeinkapen dugu misio lanetan. (Bis)

7. Mariari otoitza

Kandela piztuta egingo zaio otoitz Mariari, berarengatik Jesus, Hitza, gizon egin eta gure artean bizi izan zelako. Berak argituko gaitu bere Semearen Argiarekin. Horregatik esaten dugu bera dela Izarretan handiena.

*Maria, zure Semearen maitasunak ez du mugarik.
Guztiei iristea nahiko genuke,
eta horregatik eskatzen dizugu zure misiolari izaten laguntzeko.
Jainkoaren ama eta gure Ama,
Jesusen hitzek beti lagun nazatela.
Egidazu poz, barkamen eta bake eramaille.
Eta iritsi dadila zure maitasunezko begirada haur guztietara.
Lagun iezadazu bihotz zabaltasunez bizitzen,
Jesus gure artean bizi izan zen bezala.
ERAMAN NAZAZU ZURE ESKUTIK!!!*

Mariaren oinetan kandelak piztuta jartzen diren bitartean, «Agur Maria» abestuko da:

Agur Maria, graziaz betea,
Jaungoikoa da zurekin, bedeinkatua
zu eta zure
sabeleko frutu, Jesus.

Santa Maria Jainkoaren ama,
gu pekatarien alde,
otoitz egizu orain ta gure heriotzeko
orduan.

Isiltasunean, haur bakoitzak "Maria, misioetako ama, lagun iezadazu misiolari izaten" esango dio Mariari.



CATEQUESIS DE INFANCIA

La Palabra, luz para los pueblos

Proponemos una catequesis de carácter celebrativo, más que expositivo. Consta de dos partes: una introductoria y otra, la propiamente celebrativa.

En ella, a través de signos y oraciones, se pretende por medio de estos dos objetivos, ayudar a los niños a:

3. Comprender que Jesús está presente en la Palabra de Dios proclamada en la Iglesia.
4. Comprender que los misioneros y misioneras, anuncian la Palabra de Dios, que es Jesús, para que esta ilumine a todos los Pueblos.

I. INTRODUCCIÓN

1. Presentación del cartel de Domund

La catequesis comienza comentando el cartel del Domund que nos servirá para explicar las presencias de Jesús.

Con los niños buscamos la respuesta a esta pregunta: ¿Dónde está Jesús en ese cartel?

- En el sacerdote, que actúa en nombre de Jesús.
- En la Biblia, porque siempre que es proclamada por la Iglesia, es el mismo Jesús el que habla.
- Entre la comunidad reunida. «donde estén dos o tres reunidos en mi nombre, allí estoy yo, en medio de ellos» (Mt 18, 20).
- En la Cruz porque es el signo de los cristianos y recuerda siempre la entrega de Jesús por los hombres

2. Presentación de los signos para la celebración

En la celebración se propone usar unos signos para que los niños interioricen que Jesús es Luz y Palabra y que los misioneros hacen presente a Jesús por medio de su testimonio (Luz) y de su predicación (Palabra)

- Una Cruz
- El Cirio Pascual
- Una Biblia
- Dos cirios
- Una imagen del Niño Jesús lo más grande posible
- Una vela para cada niño



II. DESARROLLO DE LA CELEBRACIÓN

1. Procesión de entrada


El grupo de catequesis entran en el templo en procesión: una Cruz, el Cirio Pascual apagado, una Biblia, dos cirios encendidos a cada lado de la misma, la imagen del Niño Jesús y una bandeja en la que están colocadas las velas individuales.

Al llegar al centro del altar colocar cada signo en su sitio:

- La Cruz y el Cirio cerca la una del otro. Ambos representan a Cristo.
- La Biblia en el ambón y los dos cirios a cada lado si se tiene base, si no, se quedarán los dos niños que porten los cirios.
- La bandeja con las velas a los pies del ambón, al igual que la imagen del Niño Jesús.

Canto: Jauna, Jauna, egin gu pakearen zerbitzari...
Señor, Señor, haz de mí un instrumento de tu paz...

Señor, Señor, haz de mi un instrumento de tu paz.
Que allí donde haya odio, que yo ponga el amor.
Que allí donde haya ofensa, que yo ponga el perdón. (bis)



Señor, Señor, haz de mi un instrumento de tu paz.
Que allí donde haya discordia, que yo ponga la unión.
Que allí donde haya error, que yo ponga verdad. (bis)

Señor, Señor, haz de mi un instrumento de tu paz.

2. Oración

Quien preside, después del saludo, ora en voz alta:

Señor, tu estás presente en medio de nosotros, estamos reunidos en tu nombre, te damos gracias porque estás aquí, podemos sentir tu presencia. Miramos la Cruz y te vemos allí, el Cirio Pascual nos recuerda tu Resurrección. Sabemos que nos hablas y te haces presente en las palabras de la Biblia. ¡Señor, te demos gracias! ¡Señor estás en medio de nosotros! Acompáñanos, ilumínanos y danos fuerza para ser misioneros. Amén.

3. Lectura del Evangelio

Después de un breve silencio se sientan para escuchar la Palabra de Dios:

En el principio existía la Palabra y la Palabra estaba con Dios, y la Palabra era Dios. Ella estaba en el principio con Dios. En ella estaba la vida y la vida era la luz de los hombres, y la luz brilla en las tinieblas y las tinieblas no la vencieron.

La Palabra era la luz verdadera que ilumina a todo hombre que viene a este mundo. Vino a su casa, y los suyos no la recibieron. Pero a todos los que la recibieron les dio poder de hacerse hijos de Dios, a los que creen en su nombre.

Y la Palabra se hizo carne, y puso su Morada entre nosotros, y hemos contemplado su gloria, gloria que recibe del Padre como Hijo único, lleno de gracia y de verdad. A Dios nadie le ha visto jamás: el Hijo único, que está en el seno del Padre, Él lo ha contado. (Jn 1, 1-2. 4-5. 9. 14. 18)

4. Explicación catequética

Con la participación de los niños el catequista comenta con los niños estas u otras ideas narrándolas:

- La Biblia es la Palabra de Dios. Ella contiene todo lo que Dios ha hecho y ha dicho a su pueblo a lo largo del tiempo y que se ha puesto por escrito para que todos lo conozcan. Para los cristianos es muy importante leer la Biblia y escuchar la Palabra de Dios, porque es Dios mismo quien nos habla, especialmente cuando es proclamada por la Iglesia.
- Hemos escuchado que “la Palabra se hizo carne y habitó entre nosotros”: Jesús es la Palabra definitiva del Padre porque ya no nos habla no con letras o sonidos sino con su

propio Hijo: con su encarnación (por eso hemos traído en procesión el Niño Jesús), con su vida (de la que nos hablan los evangelios, que es una parte de la Biblia), con su pasión y su muerte (que representamos con la cruz) y con su resurrección (que simbolizamos en el Cirio Pascual).

- También la Palabra la luz verdadera que ilumina a todos los hombres y pueblos, representada en el Cirio Pascual. Jesús es la Luz verdadera, la que nos ilumina para que veamos bien el camino que nos lleva a vivir como hijos y como hermanos.
- El cristiano es misionero cuando sigue la luz de Jesús: acoge la Palabra de Dios, la lleva a su vida para ponerla en práctica y con el testimonio de su vida y su palabra la anuncia a los demás.
- Ahora vamos a desarrollar con gestos cada uno de estos signos que nos dicen que Jesús es la luz de los Pueblos. Lo hacemos con respeto y meditando en oración lo que significan: Cristo es la Palabra que debe ser proclamada y la luz que debe ser difundida a todos los pueblos.

5. Reverencia al Evangelio

Se invita a los niños a acercarse a besar la Biblia, en silencio y con respeto, tan solemnemente como sea posible. Han comprendido que Jesús es la Palabra y desean reconocerlo con este gesto. Se puede hacer una breve monición introductoria, recordándoles que la imagen del Niño Jesús está cerca de la Biblia, ya que Jesús es la Palabra de Dios hecha carne por todos los hombres.

Mientras tanto se puede volver a cantar **“Mensajeros de la paz”**.

6. La Luz de Cristo: el Cirio Pascual

Se enciende el Cirio Pascual una vez se hayan apagado las luces del lugar, quedando prácticamente a oscuras o en penumbra.

Con la Cruz y el Cirio presidiendo la celebración se recuerda a los niños que la Cruz y el Cirio hacen presentes la Palabra que lo ilumina al mundo, la vida de los hombres, la cultura de los pueblos...

Cada niño se acerca a la Cruz y hace un gesto de reverencia; después coge una vela y la enciende del mismo Cirio Pascual simbolizando su ser discípulo de Jesús y misionero. Su luz se enciende de la única Luz, que es Cristo, porque desea llevarla a los demás.

Mientras, se canta: «Somos misioneros» (CD, Getsemaní, *Somos misioneros*)

SOMOS MISIONEROS
TENEMOS UNA MISIÓN
QUEREMOS VER EL MUNDO
LLENO, LLENO,
LLENO, LLENO DE AMOR.

SOMOS MISIONEROS
TENEMOS UNA MISIÓN
QUEREMOS VER EL MUNDO
LLENO, LLENO,
LLENO, LLENO DE DIOS.

1.- Para que se cierren heridas,
y que se abran más puertas,
necesitamos que haya
más amor en nuestra tierra.
Para que se acaben las guerras,
y que se cumplan los sueños,
necesitamos que enciendas
la luz que da el Evangelio.

SOMOS MISIONEROS...

2.- Para que no haya más hambre
y que no existan fronteras
necesitamos que haya
más amor en nuestra tierra.
Para que respeten la vida
donde el futuro es incierto,
necesitamos que enciendas
la luz que da el Evangelio.

SOMOS MISIONEROS...

3.- Para que se abran caminos
donde dejar nuestras huellas
necesitamos que haya
más amor en nuestra tierra.
Para que a nadie le falte
el amor como sustento,
necesitamos que enciendas
la luz que da el Evangelio.

SOMOS MISIONEROS...



Ver partitura

7. Oración a María

Con la vela encendida se reza a María porque por ella Jesús, la Palabra, se hizo carne y habitó entre nosotros. Ella nos ilumina con la Luz de su Hijo, por eso decimos que es la mayor de las Estrellas.

*María, el amor de tu Hijo no tiene fronteras.
Nos gustaría que llegara a todos
y por eso te pedimos que nos ayudes a ser sus misioneros.
Madre de Dios y Madre nuestra,
que me acompañen siempre las palabras de Jesús.
Hazme portador de alegría, de perdón y de paz.
Que tu mirada de ternura llegue a todos los niños.
Ayúdame a vivir con generosidad, como Jesús vivió entre nosotros.
¡LLÉVAME DE TU MANO!*

Mientras se ponen las velas encendidas a los pies de María se canta «Agur María»

Agur Maria, graziaz betea, Jangoikoa da
zuekin, bedeinkatua zu eta zure
sabeleko frutu, Jesus.

Santa Maria Jaingoikoaren ama,
gu pekatarioren alde,
otoitz egizu orain ta gure eriotzeko orduan.

En silencio, cada niño le dirá: «María, madre de las misiones, ayúdame a ser misionero».

